



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko abuztuaren 13an

84 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, aurrekontuko “Foru Komunitateko administrazioan euskara sustatzeko plana” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Material didaktikoa eta kulturala diseinatu eta argitaratzea” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Komunikabideetan euskara sustatzeko programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Euskaraz ikertzeko laguntzak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Proiektuak eta azterlanak egitea” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Euskal hizkuntza sustatzeko kanpainak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Fonoteka proiektua” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Lizarra-Azagra, Baztan-Bidasoa-Altsasu eta Tuterako eskualdeetako osasun garraioaren zerbitzua kontratatzeko espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, udaletako idazkarien bajak betetzeko zerrendak prestatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, toki entitateek jasotako diru kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Toki enteen administrazio berregituraketako prozesuak sustatzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura egindako ekintzei eta horien zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aldi baterako kontratatutako langileei urriko lansaria aurreikusitako epean ez ordaintzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Ameriketako kontsultora batek egindako inkestan Nafarroako ospitaleek duten tokiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Entitateentzako diru laguntzak, komunitateko aurre-hartze programetarako” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karrera aplikatzeko baremoen onespenerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, N-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa. Gai-dituen zerrenda (26. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izendape-na (27. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 2001eko uztailan egindako bilerak (28. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko uztailan sartu diren dokumentuen zerrenda (28. or.).

F saila:
GALDERAK

Aurrekontuko “Foru Komunitateko administrazioan euskara sustatzeko plana” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Foru Komunitateko administrazioan euskara sustatzeko plana” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. 17230-3 lerroa, Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko plana.

Kontusail honen berariazko helburua da “fun-tzionarioak euskaraz jakiteko prestatzea, adminis-trazio publikoetako langileen prestakuntza zentro-aren bitartez.

Aurreikusitako jarduerak Euskaltegiaren bitar-tez garatzen dira; funtsean, era askotako presta-kuntza ikastaroak dira: trinkoak, estentsiboak, bir-ziklatzekoak, udako ikastaroak, ikastaro teknikoak...

Aurrekontu lerroak 13 milioiko kopurua du; horietatik, azaroaren 6an, 4.487.756 pezeta gas-tatu dira. Gainerakoa erabili gabe dago.

Lerroak, Euskaltegiaren jarduerari euskarria ematetik ondorioztaturiko ezaugarriak ikusita, ez du alde aurretik hitzarturiko kopururik; beraz, haren betetzea ezin da urte bukaerara arte balo-ratu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Material didaktikoa eta kulturala diseinatu eta argitaratzea” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Material didaktikoa eta kulturala diseinatu eta argitaratzea” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17240-0 lerroa, Material didaktikoa eta kulturala diseinatu eta argitaratzea.

Lerroak, hasieran, 6 milioi pezetako kopurua zuten. Ebazpen baten bitartez, Aita Polikarpo Irazokoaren “Hitz lauuko lanak II” liburua argitaratzea. 1.200.000 pezeta gastatu ziren horretan. Liburua euskaraz dago, eta argitaratu berria da.

Halaber, ebazpen bitartez ere, “El Euskera en tiempos de los Eúskaros” liburua argitaratzea onetsi zen. Zenbait egilek Nafarroako Ateneoaren eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin eginiko lana da. 900.000 pezeta erabili ziren horretan. Argitalpen hori gaztelaniaz dago eta inprimatzen ari da.

Ebazpen bitartez, “Eskura” aldizkaria prestatu eta argitaratzeko klausula administratiboen plegua onetsi zen. Muga 1.500.000 pezetatan ezarri zen. Urtean hiru ale argitaratzen dira, euskaraz eta erdaraz, bi aletan.

2.440.500 pezeta gelditzen dira gastatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Komunikabideetan euskara sustatzeko programak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Komunikabideetan euskara sustatzeko programak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

3. 17250-8 lerroa, Komunikabideetan euskara sustatzeko programak.

Lerroak 49.500.000 pezeta zituen.

Ebazpen baten bitartez laguntzetarako deialdia argitaratu zen. Guztira, 49.500.000 pezeta zeuden esleitzeko, eta bi epetan ordaintzeko ziren: lehen

epea, honezkero, ordainduta dago; bigarrena, urte bukaeran ordainduko da, azaroaren 15a baino lehen, gastuak eta dirusarrerak justifikatu ondoren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Euskaraz ikertzeko laguntzak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskaraz ikertzeko laguntzak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseila-riaren erantzuna:

17260-5 lerroa, Euskaraz ikertzeko laguntzak.

Lerroak 5 milioi pezeta zituen.

Ebazpen batez, hizkuntza normalizazioaren eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak sustaturiko proiektuen arloko 5 beka emateko deialdia onetsi zen. Ondokoei esleitu zitzaizkien:

– Sortzen elkarte (Euskaraz mintza proiektua), milioi bat.

– Hernández, Daniel - Arcelus, Itziar eta Espartza, Ignacio (Euskara eta Internet lan proiektua), 955.000 pezeta.

– Arrese, Miren (“Euskara ikasten ari naiz” Hel-duen euskalduntzeko prozesua), 900.000 pezeta.

– Cabello, Bartirtze (Burlatako Erakunde- en Hizkuntza Normalkuntzarako Plana), 1.045.000 pezeta.

– Vilches, Carlos (Euskarari buruzko diskur- toa elite unibertsitarioan), 1.100.000 pezeta.

Kopuru horiek bi epetan ordaintzekoak dira. Honezkero, lehen epea ordainduta dago; bigar- rena lana ematerakoan ordainduko da.

Hautapen irizpidea deialdiko 8. oinarrian aurki daitezke, eta ondokoekin lotuta daude: proiektua- ren kalitatea eta bideragarritasuna, interesa eta bestelako faktoreak (espedientea, beste laguntza- rik jaso ez izatea, lan egoera).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla- mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Proiektuak eta azterlanak egitea” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Proiektuak eta azterlanak egitea” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17270-2, Proiektuak eta azterlanak egitea.

Lerroak 12.000.000 pezeta zituen.

Ebazpen batez, “Nafarroako Gazte Elkarteetan euskara sustatzeko ikerketa-proiektua” lanetarako klausula administratiboen plegua eta gastua one-

tsi zen. 4.250.000 pezetatan baloratu zen lan hori. Azterlan hori “Taller de Sociología” enpresari esleitu zitzaion, deialdian ezarritako irizpideei jarraituz: proposamenaren kalitatea, proposamena helburu eta edukien arabera izatea eta proposamena bigarren klausulan ezarritako helburu, eduki eta gainerakoz zehaztapenen arabera izatea (% 60), laneko esperientzia (% 25), proposamen ekonomikoa (% 10) eta enpresaren lan egoera (% 5).

Ebazpen batez, “12-16 urteko gazteen artean euskaren erregistro ez-formalen ezagutza eta erabilera garatzea” lanetarako klausula administratiboen plegua eta gastua onetsi zen. 4.750.000 pezeta zeuden horretarako. Azterlana SIADCO enpresari esleitu zitzaion 4.725.000 pezetatan, aurrekoan aipaturiko irizpide berak erabiliz.

3.000.000 pezeta daude gastatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Euskal hizkuntza sustatzeko kanpainak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskal hizkuntza sustatzeko kanpainak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17300-8 lerroa, euskara sustatzeko kanpainak.

Kontusailak 32.000.000 pezeta zituen hasieran.

Iruñeko Udalarekin batera, "Gabriel Aresti" erakusketa antolatu zen, 1.100.000 pezetako gastuarekin.

Ebazpen batez, "Mozorro Berri" antzerki kanpainarako deialdia egin zen; guztira, 10.000.000 pezeta ezarri ziren horretarako. Kanpaina 7.800.000 pezetatan esleitu zen.

Ebazpen batez, lehiaketa bitartez "Euskara eta Kultura Nafarroan" erakusketa kontratatzea xedatu zen. 6.000.000 pezetako gehieneko kostua aurreikusi zen. 5.927.000 pezetatan esleitu zen.

Iruñeko Udalarekin batera, "Zinema euskaraz" kanpaina antolatu zen; 580.000 pezetako gastua izan zen.

Ebazpen batez, "Ze Berri" aldizkariaren urteko gasturako baimena eman zen, Nafarroako Gobernuak eta Uharte, Esteribar eta Arangurengo Udaletako Zerbitzuen Mankomunitateak sinaturiko hitzarmenaren barruan. 4.800.000 pezetako kostua izanen du horrek.

Iragarkietan, 802.567 pezeta gastatu dira.

Gainerako dirua, 8.700.000 pezeta, gastatzeko dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko "Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako" kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko "Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako" kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17310-5 lerroa, Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako.

Lerroak 138,7 milioi pezeta zituen guztira.

Lerro osoa ondokoetarako erabili da:

1) Euskara sustatzeko kultur jarduerak ordaintzea Nafarroako Gobernuarekin laguntza-hitzarmenik ez duten udaletan.

2) Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena duten udaletako euskara teknikarien lansarietako zati bat ordaintzea.

3) Udal horietan euskarazko kultur jarduerak ordaintzea.

4) Udal horietako langileak euskalduntzeko planak ordaintzea.

5) Iruñeko Udalarekiko hitzarmena.

6) Kanpainak.

Orain arte hitzartutakoak 131.073.441 milioi pezeta egiten du. Iruñeko Udalak oraindik ere ziurtagiri batzuk aurkeztu behar ditu, harekin sinaturiko hitzarmena betetzeko. Halaber, zenbait udaletako jarduerak justifikatzeko daude.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-

rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17320-2, Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa.

Lerroak 14.500.000 pezeta zituen hasieran.

Ebazpen batez euskara sustatzeko kultur jarduerak egiteko laguntzen deialdia onetsi zen. Beste ebazpen batez, laguntza horietarako deialdia ebatzi eta 11.595.000 pezetako laguntzak esleitu zituen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17330-0, Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko.

Lerroak 9.500.000 pezeta zituen hasieran. 2.400.000 pezetako kreditua atxikitzeko doikuntza bat egin zen lerroan.

Hitzarmen bat dago sinatuta UZEIrekin. 2.800.000 pezeta ordaindu zaizkio bi epetan.

Halaber, hitzarmen bat dago Udako Euskal Unibertsitatearekin. Haren bitartez, 3.500.000 milioi pezeta ordaintzen zaizkio. Ordainketa hori egin gabe dago fakturen egiaztagiria aurkeztu gabe daudelako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak

galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17360-1, Euskaltzaindiarentzako diru laguntza.

Lerroak 20 milioi zituen hasieran. “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailetik 2.400.000 pezetako kreditua atxiki zitzaion, gero. Euskaltzaindiarekin sinaturiko lankidetzaren arabera, Nafarroako Gobernuak 22.379.245 pezeta ordaindu behar dizkio; bi epetan egin da ordainketa hori.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Aurrekontuko “Fonoteka proiektua” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Fonoteka proiektua” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du zenbait kontusailen betetze-egoe-rari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

17370-9, Fonotekaren proiektua.

Proiektuaren helburua da Nafarroako euskalkietan eginiko grabazioak euskarri eguneratuetan gordetzea eta grabazio berriak egitea, gal ez dai-tezen. Haiekin funts bat eratu eta ikerlari eta gainerako guztien eskura jarriko da.

Lerroak 7 milioi zituen hasieran. Kreditu-trans-ferentziaren bitartez, beste 5 milioi jaso zituen “Nafarroako Toponimiako azterlanak eta proiektuak” kontusailetik.

Ebazpen batez 2000. urteko “Nafarroako Euskararen Fonoteka Proiektuaren II Fasea” lanetarako klausula administratiboak eta gastua onetsi zen, hain zuzen ere grabazio berriak aurkitu, erosi eta digitalizatzeko eta haiei tratamendu tekniko filologikoa aplikatzeko; gainera, behin-behinekoz Fonoteka funtzionamenduan jartzeko Zuzendaritza Nagusiaren lokaletan. 12 milioiko gastua ezarri zen, gehienez ere. Ebazpen batez, lan horiek XARELAN MULTIMEDIA, S.L.L. enpresari esleitu zitzaizkion, 11.750.000 pezetatan. Bi epetan ordaintzekoa zen kopuru hori, eta honezkero lehen epea ordainduta dago. Bigarrena urte bukaeran ordainduko da, enkargaturiko lanak bukatzen direnean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Lizarra-Azagra, Baztan-Bidasoa-Altsasu eta Tuterako eskualdeetako osasun garraioaren zerbitzua kontratatzeko espedienteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Lizarra-Azagra, Baztan-Bidasoa-Altsasu eta Tuterako eskualdeetako osasun garraioaren zerbitzua kontratatzeko espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 20ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Lizarra-Azagra, Baztan-Bidasoa, Altsasu eta Tuterako eskualdeetako osasun garraio-zerbitzua kontratatzeko espedienteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Zergatik eginen da, orduan, presako izapidaketaren bidez 2001eko lehiaketaren adjudikazioa?

Urriaren 3an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari Nafarroako Gobernuaren erabakiaren berri eman zitzaion; erabaki horren bitartez, hain zuzen ere, baimena ematen zaio Osasunbidea-

Nafarroako Osasun Zerbitzuari 2001. urterako Lizarra-Azagra, Baztan-Bidasoa, Altsasu eta Tuterako aldeetan osasun garraioaren zerbitzua kontratatzeko adjudikazio-espedientea hasteko; halaber, gastua egiteko baimena ematen da.

Erabaki hori jakinarazi zen egunak zein ziren ikusita, eta kontuan hartuz lehiaketa publiko baten epe administratiboak eta adjudikazio-hartzaileak zerbitzua antolatzeko eduki behar duen zuhurtasuneko epea, presako izapidaketara jo genuen, zerbitzuak azaroaren 30ean adjudikatu ahal izateko.

Ba al da modurik proposamenak aurkezteko epea luzatzeko?

Ez dago inolako modurik proposamenak aurkezteko epea luzatzeko.

Kalte egin al diezaieke horrek balizko hartzaileei?

Ez. Izan ere, presako prozedurak ere kontratazio publikoaren oinarri izan behar duten legezko printzipioak bermatzen ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko azaroaren 28an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Udaletako idazkarien bajak betetzeko zerrendak prestatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak udaletako idazkarien bajak betetzeko zerrendak prestatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 27ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du udaletako idazkarien bajak betetzeko zerrendak prestatzeari buruz. Nafarroako Gobernuak jartzen ari den konponbideei jarraituz, lehenbizi aldi baterako bajak betetzeko izangaiei zerrenda bat eginen da.

honako hau jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuaren ustez, aipatu zerrendak noiz egonen dira erabili ahal izateko moduan, Foru Komunitateko idazkarien kidegoan aldi baterako sortzen diren hutsune horiek betetzeko?

Nafarroako Gobernuak 2001eko otsailaren 1ean edukiko dituela aurreikusi du.

2.- Nafarroako udaletan dauden bitarteko idazkariari dagokienez, neurriren bat hartzeko asmorik al du Nafarroako Gobernuak?

Foru Administrazioari buruzko Foru Legeak arautzen du Nafarroako lurralde-mapa behin betiko berrantolatu arte ezin izanen direla idazkaritza eta kontu-hartzaitzako lanpostuak jabetzan bete. Nafarroako behin-behineko idazkariak Nafarroako toki entitateen zerbitzuko aldi baterako kontratundun langileak dira, legeak ez baitu biderik ematen lanpostu horiek jabetzan betetzeko. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuak zuzen balioesten du aldi baterako idazkariak egoteak suposa-

tzen duen giza kapital garrantzitsua, eta aintzat hartuko du esperientziaren irizpidea, antolamendu juridikoak bidea ematen duen neurrian, aipatu lanpostuen gaikuntzak desblokeatzen direnean.

3.- Bitarteko idazkari horien izendapena legezkoa ote den aztertzei aukera aintzat hartu al du Nafarroako Gobernuak, horien postuak beste idazkari titular batzuekin bete ahal izateko xedez?

Nafarroako Gobernuak Nafarroako toki entitateek antolamendu juridikoaren aurka gauzaturiko egintza edo hartutako erabaki guztiak aurkatzeko legezko betebeharrak dauka; beraz, bestelako gogoetak alde batera utzita, legez kanpo betetako idazkaritza lanposturik egon eta Nafarroako Gobernuak horren berri baldin badu, izendapen hori egiteko erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkeztu du, antolamendu juridikoaren aurkakoa izateagatik.

4.- Nafarroako Gobernuak asmorik al dauka bitarteko idazkarien egoera arauzkotzeko? Idazkari horiek urte askoz jasan behar izan dute legea egin eta administrazio zerbitzuen elkarrean arazo konpontzeko borondaterik eza.

Nafarroako Gobernuaren ustez, ez dago legezko bitartekorik egoera hori bideratzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 27ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruz. Hona Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako eskualdeetarako goi presioko ur hornidurari buruzko plan zuzendariaren betetze-maila zein da?

Ikertzeko eremuak	Betetze-maila aurreikusitako inbertsioen arabera:	
	1. fase edo epe laburra	Inbertsioa, guztira epe laburra + epe luzea
1.- Bidasoa	% 65,42	% 47,38
2.- Urumea-Leitzarar-Araxes	% 31,42	% 22,65
3.- Baztan-Urdazubi- Zugarramurdi	% 17,07	% 12,91
4.- Ultzama-Basaburua-Lantz	% 36,88	% 22,53
5.- Urdalur	% 57,18	% 51,56
6.- Iruñerria	% 30,29	% 16,31
7.- Pirinio zentrala	% 35,55	% 22,66
8.- Zaraitzu	% 81,13	% 56,64
9.- Erronkari	% 21,76	% 14,85
10.- Irati	% 32,56	% 18,42
11.- Aragoi ibaiaren goialdea	% 63,17	% 59,04
12.- Jurramendi	% 39,22	% 29,15
13.- Errezu	% 59,09	% 55,40
14.- Mairaga	% 49,75	% 41,86
15.- Aragoi eta Arga ibaien behealdea	% 33,10	% 26,60
16.- Hegoaldea (A aukera)	% 77,45	% 23,31
16.- Hegoaldea (B aukera)	% 77,45	% 46,19
GUZTIRA, (A aukerarekin)	% 44,25	% 27,26
(B aukerarekin)	% 44,25	% 30,41

OHARRAK:

1. fase edo epe laburrekoa ala epe luzekoa den Nafarroako Aurrekontu Orokorretako aurrekontu-kontsignazioaren arabera erabakitzen da.

A aukera hegoaldeko ur hornidurari begira prestatuta dago, Nafarroako Ubidearen lehen faseari begira (Pitillasko aintzira).

B aukera Nafarroako Ubidearen garapen osoari begira prestatuta dago.

2.- Eskualde bakoitzerako inbertsio-aurreikuspenak betetzen ari al dira?

Oro har bai, baina kontuan izan behar da, lehenengo eta behin, beharri zeren lehentasun eman zaien; bigarrenik, obrak egiteko toki entitateek borondaterik ote duten eta, azkenik, ekitaldi bakoitzerako aurrekontu-kontsignazioa zenbatekoa den.

3.- Inbertsioa hasi ez deneko edo oso motelduta dagoeneko eskualde zehatzen bat ba al dago?

Badira oro har bi eskualde ur hornidurako inbertsioak direla-eta motel dabiltzanak, eskualde horretako toki entitateekin akordiorik lortu ez delako edo akordioa berandu lortu delako. Eskualde horiek dira:

10. eskualdea.- Irati.

15. eskualdea.- Arga eta Aragoi ibaien behealdea.

4.- Iruñerrian 2001-2003 hiru urteetan eta ondorengoetan zein obra egiteko asmoa dago?

Departamentuko zerbitzu teknikoak 2001etik 2003ra bitarteko planeko obretako lehentasunak zehazten ari dira une honetan, eta zehaztu gabe dago zer inbertsio eginen den.

Aurreikusitako obrak zein dira?

– Esteribarko ur hornidura bukatzea.

– Lanzko iturburuko ur-garraiobidea berritzea, 13 herritara ura eramateko.

– Ezkaba iparraldeko soluzioa, 20 herritara ura eramateko.

– Sarasate-Gulia soluzioa bukatzea: 5 herri.

– Olloibar bukatzea eta Goñibar osoa.

– Etxarren-Girgillaoko soluzioa: 11 herri.

– Arangurengo soluzioa: 3 herri.

– Egues II soluzioa: 5 herri.

– Banakako soluzioak ondoko herrietan: Agorreta, Etsain, Anotz, Izko, Idotzin, Sengaritz eta Eugi.

– Nafarroako Ubidetik Iruñerria ura eramateko soluzioa.

Noiz amaituko dela aurreikusten da?

Nafarroako aurrekontu orokorretako aurrekontu-kontsignazioa zein den bukatuko dira obrak.

Plan hori garatzeko kostua zenbatekoa da?

Iruñerriko ur hornidura Nafarroako Ubidetik eginez gero, ondokoa litzateke kostua:

1. fasea = 7.000.000.000 pezeta.

2. fasea = 8.600.000.000 pezeta.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Toki entitateek jasotako diru kopuruei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki entitateek jasotako diru kopuruei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 27ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du toki entitateek 1998an, 1999an eta 2000n jasotako diru kopuruei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Iruñean, 2000ko abenduaren 13an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

	NAO zk.	NAOren data
Funtsaren behin-behineko banaketa, 1998	94	98/08/7
Funtsaren behin betiko banaketa, 1998	102	00/08/23
Funtsaren behin-behineko banaketa, 1999	95	99/07/30
Funtsaren behin-behineko banaketa, 2000	103	00/08/25

1999KO BANAKETA - 4.000-10.000 BIZTANLE KOPURUKO AZPIFUNTSA

Udalaren zk.	Kontzejuaren zk.	Izena	1999ko behin-behineko banaketa
10	0	ALTSASU	15.189.403
16	0	ANTSOAIN	13.009.313
50	0	BAZTAN	16.708.991
72	0	CINTRUÉNIGO	11.817.818
77	0	CORELLA	13.939.629
157	0	LODOSA	9.905.382
202	0	AZKOIEN	9.989.564
215	0	SAN ADRIÁN	11.526.420
216	0	ZANGOZA	9.838.468
258	0	ATARRABIA	19.439.501
903	0	BERRIOZAR	11.681.832
907	0	ZIZUR NAGUSIA	20.283.477
			163.329.798

1999KO BANAKETA - 4.000-40.000 BIZTANLE KOPURUKO AZPIFUNTSA

zk.	Udalaren zk.	Kontzejuaren Izena	1999ko behin-behineko banaketa
10	0	ALTSASU	32.063.397
16	0	ANTSOAIN	27.462.525
50	0	BAZTAN	35.271.704
60	0	BURLATA	60.032.756
72	0	CINTRUÉNIGO	24.943.118
77	0	CORELLA	29.425.892
97	0	LIZARRA	47.445.560
157	0	LODOSA	20.908.129
202	0	AZKOIEN	21.085.275
215	0	SAN ADRIÁN	24.328.028
216	0	ZANGOZA	20.765.429
227	0	TAFALLA	38.455.409
232	0	TUTERA	102.911.890
258	0	ATARRABIA	41.033.865
901	0	BARAÑAIN	76.394.142
903	0	BERRIOZAR	24.657.716
907	0	ZIZUR NAGUSIA	42.815.165
			670.000.000

2000KO BANAKETA - 4.000-10.000 BIZTANLE KOPURUKO AZPIFUNTSA

Udalaren zk.	Kontzejuaren zk.	Izena	98ko biztanleen kopurua	2000ko behin-behineko banaketa
10	0	ALTSASU	7.037	15.584.387
16	0	ANTSOAIN	6.027	13.347.606
50	0	BAZTAN	7.741	17.143.489
72	0	CINTRUÉNIGO	5.475	12.125.127
77	0	CORELLA	6.458	14.302.113
157	0	LODOSA	4.589	10.162.959
202	0	AZKOIEN	4.628	10.249.331
215	0	SAN ADRIÁN	5.340	11.826.151
216	0	ZANGOZA	4.558	10.094.307
258	0	ATARRABIA	9.006	19.945.002
903	0	BERRIOZAR	5.412	11.985.604
907	0	ZIZUR NAGUSIA	9.397	20.810.924
				167.577.000

2000KO BANAKETA - 4.000-40.000 BIZTANLE KOPURUKO AZPIFUNTSA

Udalaren zk.	Kontzejuaren zk.	Izena	98ko biztanleen kopurua	2000ko behin-behineko banaketa
10	0	ALTSASU	7.037	32.897.055
16	0	ANTSOAIN	6.027	28.176.551
50	0	BAZTAN	7.741	36.188.768
60	0	BURLATA	15.860	61.593.607
72	0	CINTRUÉNIGO	5.475	25.591.639
77	0	CORELLA	6.458	30.190.964
97	0	LIZARRA	12.535	48.679.144
157	0	LODOSA	4.589	21.451.740
202	0	AZKOIEN	4.628	21.633.492
215	0	SAN ADRIÁN	5.340	24.960.556
216	0	ZANGOZA	4.558	21.305.329
227	0	TAFALLA	10.159	39.455.249
232	0	TUTERA	27.188	105.587.598
258	0	ATARRABIA	9.006	42.100.745
901	0	BARAÑAIN	20.182	78.380.389
903	0	BERRIOZAR	5.412	25.298.816
907	0	ZIZUR NAGUSIA	9.397	43.928.358
				687.420.000

“Toki enteen administrazio berregituraketako prozesuak sustatzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura egindako ekintzei eta horien zenbatekoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak “toki enteen administrazio berregituraketako prozesuak sustatzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura egindako ekintzei eta horien zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Hona Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderen erantzuna.

1. Zein ekintza eta zenbat dirurekin egin ditu azken ekitaldian zure departamentuak “Toki entitateen administrazio berregituraketako prozesuak sustatzea” izeneko aurrekontu-lerroaren kargura?

Departamentu honi esleitutako ekitaldi ekonomiko honetako lerroetako 2140076009129 eta 2140046009129 kontusailek, hurrenez hurren 58.600.000 pezeta eta 22.300.000 pezeta dituztenek, “Toki entitateen administrazio berregituraketarako prozesuak sustatzea” dute helburu. Gaur den egunean, ez dira erabili, prozesu horiek dau den egoeran egonda, hasiak egon bai baina bukatu gabe baitaude.

Prozesu horiek ondokoan dautza: departamentua kontzientziazio lanak egiten ari da udal ordezkariak interesa erakutsi duten eskualdeetan, “mankomunitateak” sortzeko, zertarako-eta udalen administrazioa arrazoizkoagoa eta ezin hobea izan dadin, behar diren zerbitzu administratiboak

eman daitezen eta udalek egoki jotzen dituzten zerbitzuak eman ahal izan daitezen.

Kontzientziazio lan hori ondoren aipaturiko toki entitateetan egin dugu, Zerbitzuko zuzendaritzarekin "lan batzordeak" eratuz. Batzorde horietan, hartzaileek parte aktiboa zutela eta departamentuko ordezkariak bertan zirela, antolamendu-diseinu berri bat prestatu eta dokumentatuko da. Orain arte, hauek izan dira lortu ditugun emaitzak:

LIZARRAKO MERINDADEA

Aras, Aguilar Kodeskoa, Cabredo, Genevilla, Marañón eta Lapoblación-Meano:

– Lan batzordea 00-05-03an eratu zen, udal guztiek horren aldeko erabakia hartuta.

– Halaber, eratu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektu bat idatzi eta onetsi da.

– Lapoblación-Meanoko udala proiektutik atera da, ez baitu onartu, gainerakoek ez bezala, mankomunitatearen egoitza Aguilar Kodeskoan jarzea.

– Mankomunitatearen proiektu bat ere badago. Berehala emanen zaie hartzaileei nahi badute onets dezaten.

Iguzkitza, Lukin, Barbarin, Villamayor de Monjardín, Etaio, Oko, Olexua, Legaria, Allin Ibarra, Metautengo Barrutia, Ameskoabarren eta Ameskoagiengo gainerako udalak:

– 00-04-10ean lan batzordea eratu zen, Ameskoabarren, Allin, Metauten, Etaio, Oko, Olexua eta Legariako ordezkariak horren aldeko erabakia hartuta.

– Gainerako udalek ez zuten zerbitzuari buruzko baiezkotza erantzunik eman.

– Halaber, eratu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektu bat idatzi eta onetsi da.

– Elkartzeko alde aurreko jarrera positiboa dago, baina konponbidea eman beharko zaie lehendik dauden egoera batzuei.

Deierri, Gesalatz, Jaitz, Abartzuza eta Lezaun:

– Udal ordezkariak harrera ona egin zioten beren udalei egitura administratibo berria, udalen arteko elkarten bidezkoa, emateko proposamenari.

– 00-09-27an lan batzordea eratu zen, aipatu udalek aldeko erabakia hartuta.

ZANGOZAKO MERINDADEA

Zaraitzuko udalak:

– Espartzako udala izan ezik, ibarreko gainerako udalek, 00-03-22an, proposaturiko lan batzordea eratzea onetsi dute.

– Halaber, eratu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektu bat idatzi eta onetsi da.

– Elkartzeko alde aurreko jarrera positiboa dago, baina konponbidea eman beharko zaie lehendik dauden egoera batzuei.

Erronkari Ibarreko udalak:

– Bilera bat egin da ibarreko udal guztiekin; bilera horretan, joan den legegintzaldian eskualde horri buruz enkargaturiko azterlanaren edukia aztertzeaz gainera, departamentuak parte aktiboa izateko eta ibarreko udalei beste antolamendu administratibo bat emateko jarrera berretsi da.

– Hasieran adierazitako interesa gorabehera, geroko elkarrizketetan berretsi baita, ez dugu erantzun zehatzik jaso.

Aezkoako udalak:

– Ibarreko udal guztiei haiekin lan batzorde bat eratzeko ekimena jakinarazi zitzaion. Batzorde hori joan den azaroaren 7an eratu zen; Or baitzetako udala izan zen hari berriaz uko egin zion bakarria.

Irunberri, Erromantzatua, Ledea, Esa, Xabier, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Nabaskoze eta Gazteluberriko udalak:

– Aipatu udal guztiekin zerbitzuaz kontzientziatze lana egin da, haiekin udalen berrantolamendu administratiboa egiteko formulak aztertze. Aurtengo irailaren 30ean ezarri zen horri buruz daukaten asmoa azaltzeko epemuga.

– Gaur den egunean, Irunberriko Udalak adierazi du horren aldeko jarrera.

IRUÑEKO MERINDADEA

Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Belaskoain, Zabaltza eta Zizurko Zendeako udalak

– Udal horiekin izandako bileran aldeko jarrera azaldu dute zerbitzuaren ekimena aintzat hartzeko. Aurtengo irailaren 15ean jarri zitzaion horri buruz iritzia emateko epea.

– Zizurko Zendeako alkatea ez zen bilera horretara joan, baina ekimenaz informatzeko ardura bere gain hartzeko konpromisoa azaldu zion zerbitzu honi.

Obanos, Uterga, Legarda, Muruzabal, Eneritz, Adios, Ukar, Añorbe eta Tirapuko udalak

– 2000-09-26an eratu zen lan bilera. Aipatu udal guztien jarrera oso aldekoa zen, eta elkartze-ko jarrera oso argia adierazi zuten.

– Urriaren 26an batzordearen beste bilera bat izan zen; hartan, lan hipotesi gisa, estatutuen proiektu bat onetsi zen.

– Batzordea gutxienez ere hilabetean behin bilduko dela erabaki da.

Lakuntza, Arbizu eta Ergoienako udalak (Sakana):

Zerbitzuak ahaleginak egin ditu joan den legegintzaldian elkarketari buruz egin zen azterketa dela-eta udal horiek erakutsi duten interes falta gainditzeko. Ez dugu aurkitu elkartzeko behar den interesa pizteko jarrerarik.

Esteribarko Udala:

– Udal eta kontzejuetako ordezkariekin informazio-hitzaldi bat egin ondoren, udalaren administrazioa berrantolatzeaz aritzeko, bi entitateen eskumenak batera biltzeko formulak aztertze-ko jarrera aurkitu dugu haiengan. Halaber, eztabaida-foro bat eratzea proposatu zitzairen, hain zuzen ere eskumenetan gertatzen diren tentsioetarako konponbidea bilatzeko eta kudeaketa lanetarako guztiek duten ahalmena antolatu eta hobetzeko, betiere udaleko herritar guztien onura bilatuz.

– Dokumentu hau idazteko garaian, Udalaren arabera, era askotako erantzunak eman dira, guztiak aintzat hartzekoak.

Larraun eta Lekunberriko udalak:

– Harremanetan jarri gara bi udaletako ordezkariekin, departamentuak berrantolamendu administrazioaren arazorako alternatibak aztertu eta proposatzeko ekimena azaltzeko. Udal horiek horri buruz duten iritzia ezagutzeko zain gaude.

– Eskaintza hori bera Aresoko Udalari ere egin zaio, haien eragin eremuan egon eta aipatu ekimenean interesaturik egon daitekeelako.

Erriberriko Merindadea

Orbaibarko udalak:

– Joan den legegintzaldian elkartzeari buruz eginiko azterlanaren irizpideak aztertze-ko eta berriz eztabaidatzeko jarrera bat bilatu nahi izan dugu udal horietan, baina ez dugu halakorik lortu.

– Harremanetan jarraitzen dugu udal ordezkari-aren batekin, elkarrekin ulertu beharra duen eremu bateko elkartze-ekimenari berriz heltzeko une egokia aurkitzeko.

2. Zenbat herrik, neurri horietan parte hartu nahi izanda ere, ezin izan dute eta zergatik?

Ez dakigu inongo herririk dagoenik departamentu honen ekimenez egin diren berrantolamendu administrazio boko prozesuetan –aipatu berri ditugunak– parte hartzeko borondatea agertu eta gainerako herrien tratamendu bera izan ez duenik.

Iruñean, 2000ko azaroaren 24an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aldi baterako kontratatutako langileei urriko lansaria aurreikusitako epean ez ordaintzeko arrazoiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aldi baterako kontratatutako langileei urriko lansaria aurreikusitako epean ez ordaintzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 20ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aldi baterako kontratatutako zenbait langileri lansaria aurreikusitako epean ez ordaintzeko arrazoiei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren ardurapeko nomina guztiak egutegi bati loturik izapidetzen dira, eta egutegi horrek balio du nominak kudeatzen dituzten zentroyen jarduera koordinatzeko (alegia, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarena, Osasunbidea/Nafarroako Osasun Zerbitzuarena eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuarena berarena ere). Nominaren azken izapidetzeak (lansariak ordaintzerainokoak) hainbat ekintza beharrezko ditu, hala nola ebazpenak, ordainketa-aginduak eta bankuetarako transferentziak, eta, horren ondorioz, hilabete bakoitzeko 21. egunaren inguruan bukatzen da nominarako datu-sartzea, Nafarroako Gobernuko langile guztien nomina hilabete horretan bertan ordaindu ahal izateko.

Bestalde, eskola-ikasturte bakoitzaren egitura dela-eta (aurreko ikasturtea amaitzea eta berria hastea), edozein arrazoiengatik euren lan-harremana egun horietan amaitzen duten pertsona guztiak nominatik kanpo utzi behar izaten dira. Pertsona horietatik batzuk behin betiko uzten dira kanpoan, eta beste batzuk berriro ere kontratatu egiten dira. Edonola ere, nomina-kudeaketan gorabehera horien berri eman eta kasuan kasuko

likidazioa egin behar da, eta aparteko ordainsariak ere ordaindu behar dira. Ikasturte berrirako kontratuak irailean eta urrian zehar izenpetzen dira, eta izenpetze-eguna destino-esleipeneko egunaren nahiz egoera berriak suertatzearen baitakoa da. Halaxe gertatu da ikasturte honetan; izan ere, Lehen Hezkuntzan Erljio irakasleak bereganatu dira, ikasturte hasieran transferitu baitziren.

Lan-zama eta pertsonengan, gizarte segurantzian eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuko aurrekontuan bertan gerora izandako eragina direla-eta, gomendagarria da nominatik at behin betiko utzitako pertsonak dagozkien ordainsariak besterik ez jasotzea, horrela saihesteko itzulketa-eskariak, langabezia-ziurtagiriak, gizarte segurantzari gehiegizko kotizazioak egitea eta interesatuei bestelako arazoak sortzea. Nomina-egutegia eta nominatik kanporatzearen eta nominatzearen egunak zein diren kontuan hartuz, ondoriozta daitete oso zaila dela kontratatu guztiek lanean hasi diren hilabetean bertan normaltasunez kobratu ahal izatea; bereziki, nomina ixteko egunetik (hilabete bakoitzaren 21a inguruan) hurbil badaude kontratu-sinatzea, INEMeko bulegoetan erregistratzea (hala behar izanez gero), lanaren hasiera eta interesatuen datu pertsonalen bilketa.

Langile horien nominak Lan-kontratudun eta Administrazioen Nomina Bulegoan kudeatzen dira. Bulego horrek normalki hiru pertsona izaten ditu, eta, denboraldi normaletan, kudeaketa behar bezala egiten dute. Gorabehera gehiagoko hilabete horietan, Bulegoan lan egiten duten pertsona guztiek aparteko orduak egin dituzte. Halaber, pertsona bat kontratatu da, Bulego horretako lanean laguntzeko. Bestalde, lan horiek egiteko behar den espezializazioa —zenbait kodifikaziotan oinarriturik baitaude— dela-eta, komeni da kontratatzen den pertsonak behar adina ezagupen izatea, antzeko lanetan lehenago aritu izanaren ondorioz, eta hori ez da beti posible izaten. Dena den, nominan —zeina azaroaren erdi aldean 314koa baitzen— sartzekoak diren pertsonak jadanik kobratu dute, hilabete honetako nominan.

Azkenik, adierazi behar dut ezen, Hezkuntzako transferentziak egin zirenetik, langileren batek beharizan ekonomikoak dauzkala jakinarazten baldin badu nominaren konturako aurrerapen bat

izapidetzen zaiola, eta aurrerapen hori nominaren beraren bidez berreskuratzen dela gerora. Egoera hori ikasturte bakoitzaren hasieran gertatzen da, aurretik adierazitako guztiaren ondorioz, eta aurrerapen horien bidez konpontzeko ahaleginak egiten dira. Ikasturte bakoitzaren hasieran nominatik kanporatuen eta nominatuen kopuruak masiboak izaten direnean aurrerapen horiek ororenganatzeko asmoa daukagu, horrelako egoerak arintzeko soluzio gisa. Dena den, aurrerapen

horien izapidetzea dela-eta, pertsona horiek ez dute aurrerapena egiazki jasoko nomina ordaintzeko egunetik egun batzuk pasa arte.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 4an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Ameriketako kontsultora batek egindako inkestan Nafarroako ospitaleek duten tokiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Ameriketako kontsultora batek egindako inkestan Nafarroako ospitaleek duten tokiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 213ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Amerike-

tako kontsultora batek, SCIA Sachs lasistek, egindako inkestan Nafarroako ospitaleek duten tokiari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Amerikako enpresa hori irabazi asmoak dituen enpresa bat da. Azterlana bere produktua erosi duten ospitaleetan beste inon ez du egin. Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du uste ona denik entitate pribatuekin lotzea ondorio horietarako, Osasun Sistema Nazionalean, eta zehazki Osasun Ministerioaren Osasun Plangintzarako Zuzendaritzaren bitartez, bide horretan lanean ari direla kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Aurrekontuko “Entitateentzako diru laguntzak, komunitateko aurre-hartze programetarako” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Entitateentzako diru laguntzak, komunitateko aurre-hartze programetarako” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin

zuen urriaren 27an 17970-7 aurrekontu-lerroaren betetze-egoerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

“Entitateentzako diru laguntzak, komunitateko aurre-hartze programetarako” izeneko 17970-7 aurrekontu-lerroaren betetze-egoera. Zein entitate dira diru laguntza horien onuradunak eta zein da programa horien helburua? Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada, zergatik ez da gastatu eta zein aurreikuspen dago?

Beste instituzioei eta osasun programetarako diru laguntzen 2000ko deialdira –osasun kontseilariak emandako foru agindu bidez onesten da urtero– 25 elkarte aurkeztu ziren. Eskaerek 56.221.914 pezeta egiten dute guztira (337.900,51 euro).

ELKARTEAK	ONARTUA 1999	ESKATUTA 2000	ONARTUA 2000
FIRUS drogamenpekotasunaren aurkako elkarte	150.000	505.000	100.000
KARA drogamenpekotasunaren aurkako elkarte	175.000	475.000	100.000
Los Arcos eskualdeko drogamenpekotasunaren aurkako taldea. Izena aldatu du eta orain Juno Elkarte deitzen da	175.000	650.167	150.000
Askagintza Nafarroa	250.000	6.850.000	1.000.000
ARTAL Elkarte	175.000		
"El Camino" Elkarte	150.000	264.000	150.000
"La Majarí" Nafarroako Ijitoen Elkarte	4.100.000	7.287.561	5.000.000
Tuterako drogamenpekotasunetarako laguntza	400.000	1.107.561	450.000
Nafarroako Gazte Kontseilua	1.350.000	8.868.674	3.409.337
ANALU Ludopaten Elkarte	600.000	1.183.500	600.000
"Aralar" Ludopaten Elkarte	600.000	1.800.000	600.000
"El Marinal" Elkarte	150.000	800.000	150.000
"El Cueto" Elkarte	100.000	225.000	100.000
"Surco" drogamenpekotasunaren aurkako taldea	175.000		
Adrobe Elkarte	150.000	915.000	175.000
Lantxotegi	475.000	863.000	285.000
Nafarroako Proyecto Hombre Fundazioa	475.000	8.000.000	1.500.000
Santa Lucia ADSIS Fundazioa	2.000.000	4.300.378	2.750.000
Txiki Merced	400.000	1.000.000	1.000.000
Aldezar Gazte Elkarte	450.000	2.299.864	750.000
Gaz-Calo Ijitoen Elkarteen Federazioa		2.340.312	1.000.000
Tafallako parrokien arteko Cáritas		750.000	150.000
"AMUDELA" Larragako emakumezkoen elkarte		300.000	125.000
Guztira	12.500.000	51.035.017	19.544.337

UKATURIKO DIRU-LAGUNTZAK	
Zabalzagain Gurasoen Elkartea	1.615.000
Algora ekipo pedagogikoa	2.000.000
Argibide Fundazioa	1.571.897
Ostadar Gazte Elkartea	250.000

Proiektuak aztertu ondoren, deialdian ezarritako ebaluazio irizpideak kontuan hartuta 21 proiektu onartu ziren eta 4 baztertu (Zabalgain Gurasoen Elkartea –IFZ: G 31264443–: Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ematen dituelako Gurasoen Elkarreentzako diru laguntzak; ALGORA ekipo pedagogikoa –IFZ: G 31641467–: hezkuntzan esku-hartzeko proposatzen duten eredu Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta Osasun Departamentuak onartutako ereduarekin bat ez datorrelako; Argibide Fundazioa –IFZ: G 31080906–: laguntza arloko harrera protokolo bat prestatzea ezin delako deialdi honek xede duen osasun programatzat jo; Ostadar Gazte Elkartea –IFZ: G 31460058–: proposatutako jarduerak ez datoz bat deialdiko diru laguntzekin).

Aurrekontu lerroak 15.000.000 pezeta (90.151,81 euro) zuen hasiera batean, baina diru laguntzen proposamenak 19.544.337 pezeta (117.463,83 euro) egiten zuenez, 5.000.000 pezeta transferentzia (30.050,60 euro) egiteko agindua eman zen, 17950-2 aurrekontu-lerrotik –Drogamenpeketasunaren aurkako udal planetarako diru laguntzak– 17970-7 aurrekontu-lerroa –Entitateentzako diru laguntzak, komunitateko aurrehartze programetarako.

Hona elkarte bakoitzari emandako dirua eta zer programa garatuko dituzten:

Nafarroako Gazte Kontseilua –IFZ: Q 3150009C–. Jarduerak: Osasuna sustatu eta drogamenpeketasunari aurrea hartzeko programa (eztabaidagunea; aztura osasungarriak sustatzeko tailerra; josteta- eta prestakuntza-jarduerak; “Ostiral gaueko sukarra” jolas-gida editatu eta uztea; antzerki osasungarria eta elkartearen I. Topagunea; “Desmitifika hadi” jolasa erostea. Zenbatekoa: 3.409.337 pezeta (20.490,52 euro), honela banaturik: langileak 1.809.337 pezeta; jarduerak 1.500.000 pezeta; funtzionamendua 100.000 pezeta.

Santa Luzia fundazioa (ADSIS) –IFZ: G31203821–. Jarduerak: komunitateko aurrehartzeari buruzko programa; eskola laguntzako eta aisialdiko programa 2.750.000 pezeta (16.527,83 euro).

“Aralar” Nafarroako Ludopaten Elkartea –IFZ: G31560527–. Jarduketak egiteko 600.000 pezeta (3.606,07 euro), honela banaturik: laguntza psikologikoa eta autolaguntza: 450.000; informazioa eta sentsibilizazioa: 100.000 pezeta.

“El Cueto” elkarte (Viana) –IFZ: G31571391–. Jarduerak: Aurre-hartzeari buruz gurasoak prestatzeko programa (10 saio). Zenbatekoa: 100.000 pezeta (601,01 euro).

Txiki Merced elkarte (Lizarra) –IFZ: G31586944–. Jarduerak: autolaguntzako harremanak eta osasuna sustatzeko programa; 4 urte-tik 10 urtera bitarteko haurrentzako ludoteka; 11 eta 15 urte bitarteko gazteentzako areto futbola eta gizarte-jarduerak; emakume taldeak; elikadura eta nork bere burua zaintzea. Zenbatekoa: 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro).

“Firus” drogamenpeketasunaren aurkako elkarte (Caparroso) –IFZ: G31529977–. Jarduerak: aurrea hartzeko ikastaroak; antzerkia eta eztabaida. Zenbatekoa: 100.000 pezeta (601,01 euro).

“Kara” drogamenpeketasunaren aurkako elkarte (Santakara) –IFZ: G31529464–. Jarduerak: elikadura orekatuari buruzko kanpaina; istripuei aurrea hartzeko tailerra; eskolaz kanpoko jarduerak eta jokoak. Zenbatekoa: 100.000 pezeta (601,01 euro).

Juno elkarte –IFZ: G31486244–. Jarduerak: gurasoen eskola. Zenbatekoa: 150.000 pezeta (901,51 euro).

Nafarroako Askagintza –IFZ: G31242894–. Zenbatekoa: 1.000.000 pezeta (6010,12 euro), honela banaturik: Arazoa hobeto ezagutzea (150.000); Arazoaren gizarte-agerpena aldatzea (175.000); Prestatzaileak prestatzea (300.000); Elkartea indartu eta sendotzea (250.000); Drogamenpeketasunari buruzko erakusketa (125.000).

“El Camino” elkarte (Lizarra) –IFZ: G31283609–. Jarduerak: autolaguntzako harremanak eta osasuna sustatzea; informazioa eta sentsibilizazioa. Zenbatekoa: 150.000 pezeta (901,51 euro).

Drogazaleei laguntzeko elkarte (Tutera) –IFZ: G31212673–. Jarduerak: familientzako autolaguntzako programa; boluntarioak prestatu eta sustatzeko programa. Zenbatekoa: 450.000 pezeta (2.704,54 euro).

Nafarroako Ludopaten Elkarte (ANALU) –IFZ: G31269988–. Zenbatekoa: 600.000 pezeta (3.606,07 euro), honela banaturik: Aurrea hartu, informatu eta sentibilizatzeko kanpaina (100.000); ANALUren III. Kultur astea (150.000); monitoreentzako ikastaroa (200.000); ausazko jokorik gabeko eguna (150.000).

“El Marinal” elkarte (San Adrián) –IFZ: G31545452–. Zenbatekoa: 150.000 pezeta (901,51 euro), honela banaturik: Argibide eta orientazio bulegoa (100.000); autolaguntzako taldea (50.000).

Adrobe elkarte (Beriain) –IFZ: G31587504–. Zenbatekoa: 175.000 pezeta (1.051,77 euro), honela banaturik: Ludoteka (100.000); Bizitzen ikasteko programa (50.000).

Gizakia Helburu Fundazioa –IFZ: G31276504–. Jarduerak: SUSPERTU programa, drogak hartzen dituzten gazteei laguntzeko eta arazoei aurrea hartzeko; drogak hartzen dituzten gazteen familientzako taldeak: baliabide pertsonalak eta trebetasun sozialak garatzea; beste talde batzuen orientazioa eta prestakuntza, PFDko zuzendaritza teknikoarekin bat. Zenbatekoa: 1.500.000 pezeta (9.015,18 euro).

Aldezar Gazte Elkarte –IFZ: G31442023–. Jarduerak: bizi-aztura osasungarriak sustatzea; parte-hartzea bultzatzea; monitoreentzako tailerrak; gazteentzako tailerrak eta kanpaina. Zenbatekoa: 750.000 pezeta (4.507,59 euro).

“La Majari” Nafarroako Ijitoen Elkarte –IFZ: G31129133–. Jarduerak: drogamenpekotasunei

aurrea hartzeko eta esku-hartzeko programa: pilota eskola eta bestelako jarduerak. Zenbatekoa: 5.000.000 pezeta (30.050,60 euro, honela banaturik: langileak 3.800.000 pezeta eta jarduerak 1.200.000 pezeta).

Lantxotegi elkarte –IFZ: G31279961–. Zenbatekoa: 285.000 pezeta (1.712,88 euro), honela banaturik: drogazaleen artean aurrea hartzeko programa eta arrisku handiko natur zein kirol jarduerak, bazter geratzeko arrisku handia duten gazteekin: 15 prestakuntza saio (210.000), baliabideei buruzko 5 informazio saio (75.000 pezeta).

“Amudela” Larragako emakumeen elkarte –IFZ: G31662745–. Jarduerak: gurasoen eskola, drogamenpekotasunei aurrea hartzeko. Zenbatekoa: 120.000 pezeta (751,26 euro).

“Gazcalo” Nafarroako ijito elkarten federazioa –IFZ: G31442023–. Jarduerak: Nafarroako ijito erkidegoan drogamenpekotasunei aurrea hartzeko eta esku-hartzeko programa. Zenbatekoa: 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro).

Tafallako parrokien arteko Cáritas –IFZ: G31476021–. Jarduerak: “Tafallix 2000” hiri kanpalekua. Zenbatekoa: 150.000 pezeta (901,51 euro).

500.000 pezetatik (3.005,06 euro) beherako diru laguntza guztiak ordainduta daude, bai eta gainontzekoen % 70 ere, deialdian bertan esaten denari jarraikiz. Hortaz, ordaintzeke daude 445.663 pezeta (2.678,49 euro).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 1ean

Osasun kontseilaria, Santiago Cervera Soto

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karrera aplikatzeko baremoen onespenerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karrera aplikatzeko baremoen onespenerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeko 7 eta 8. artikuluek aipatzen duten baremoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Onetsi al ditu Nafarroako Gobernuak aipatu foru lege horretako 7 eta 8. artikuluek aipatzen dituzten baremo horiek?

Nafarroako Gobernuak ez du onetsi apirilaren 6ko 11/1999 Legeko 7 eta 8. artikuluek aipatzen duten baremoa.

Osasun arloko mahai sektorialean behar zen negoziaketa 2000ko ekainaren 14an eta irailaren 14an egin ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautu zuen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea garatzeko arauak ematen dituen Foru Dekretuaren behin betiko proiektua egin zen. Proiektu horretan, besteak beste, aipatu foru legeko 6 eta 7. artikuluetan aurreikusitakoa garatzen da. Erregelamendu-arau baten aipatu proiektuari dagokionez, 2000ko azaroaren 14an Nafarroako Kontseiluak kontsulta-organo horren osoko bilkurak emandako nahitaezko irizpena igorri zuen; irizpen hori Nafarroako Gobernuko Kon-

tseiluak testu hori behin betiko onesteko tramitatu aurreko pausua da.

2.- Lege horretako 10. artikulua ebaluazio batzordeak eratzeari buruz eratu al dira 11/1999 Foru Legearen 10. artikulua aipatzen dituen batzorde horiek? Ez bada hala izan, zer arrazoi egon da gaur egun erata ez egoteko?

Ez dira eratu legeko 10. artikuluan aipatzen diren batzordeak.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeko 10. artikuluan aurreikusitako ebaluazio batzordeen eraketa eta funtzionamenduari buruzko arauak aipatu foru legea garatzeko erregelamendu-arauen funtsezko zati bat da; beraz, haiek eratzeko, lehenbizi aurreko puntuan aipaturiko foru dekretuaren proiektua onetsi behar da.

3.- Aplikatzen al ditu Nafarroako Gobernuak foru lege horretan onetsitako osagarriaren zenbatekoak? Noiztik? Ez baditu aplikatzen, zer arrazoi dago 1999ko apiriletik foru lege hau ez betetze-ko?

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea aplikatetik ondorioztatzen diren ordainsariei dagokionez, kontuan hartu behar da lege horrek zuzenean eta berehala aplikatzeko zenbait aurreikuspen jaso zituela, eta haiek direla eta interesdunei 1999ko maiatzean zenbait diru kopuru ordaindu zitzaizkielela (geroko hilabeteetako erregulazio batzuk ezertan kendu gabe). Alabaina, beste kasu batzuetan (2000ko urtarrilaren 1ean mailaz aldatu, 1992tik hona emandako aldi baterako zerbitzuak balioetsi eta abar), apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea guztiz aplikatzeko Foru Legeak berak eskatzen dituen erregelamendu-arauak aplikatu behar dira lehenik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 4an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

N-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak N-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 27ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, idatziz erantzuteko galdera egin du N-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat istripu izan da 2000ko urriaren 31tik gaur egun arte lehen zehazturiko errepide-zatian?

2.- Nolako larritasun-maila izan du istripuetako bakoitzak?

3.- Eginiko atestatuetan oinarrituz, istripu horien zergatiak zein direla uste da?

4.- Istripua jasan dutenetatik inork salaketarik egin al du Nafarroako Gobernuaren aurka, istripuen kausa errepide horren seinalizazioaren kalitatea izan dela argudiatuz?

Erreniegako tartean (Asterain-Uterga) ez da atestatua egin den istripurik izan 2000ko urriaren 31tik azaroaren 10era bitarte,

5.- Ildo horretatik, nolabaiteko neurririk hartzea erabaki al du departamentuak?

Departamentuak aurreikusita du Erreniegako gaina kentzea Iruña-Logroño autobia egiten denean.

Bitartean, seinalizazioa dela-eta ondoko neurriak hartu dira: orduko 80 kilometroko gehienezko abiadura ezartzea Erreniega gaineratik Legardarantz, orduko 60 kilometroko gehienezko abiadura gomendatzea Asterainetik gora dauden bihurguneetan eta pintura zimurra jartzea alboko marretan.

6.- Zein enpresak egin du/dute errepide-zati horren seinalizazioa eta mantentzea?

Errepide-zati hori Iruñeko barrutiarri dagokio. Barruti horretako enpresa hartzailea Iruñeko Urbanizaciones Iruña, S.A. da.

7.- Zein izan dira zerbitzu hori enpresa horiei esleitzearen zenbatekoak?

Urteko berrehun milioi barruti osorako, hots, errepide sareko 518 kilometrorako.

Iruñean, 2000ko abenduaren 12an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa

Gaindituen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko uztailaren 11n egindako bileran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat betetzeko –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketa bukatuta (2001eko apirilaren 27ko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2001eko maiatzaren 11ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta), epaimahai kalifikatzaileak aipatu lekualdatze lehiaketa gaingitu duen izangai bakarraren emaitza Mahaia-ri igorri dio eta honek, deialdiaren 7. oinarriarekin bat, ERABAKI DU:

1. Celina Echeverría Uhalte, epaimahaiak emandako 45,873 puntu dituena, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat betetzeko –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketa (2001eko apirilaren 27ko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2001eko maiatzaren 11ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta) gaingitu duen izangai bakarra dela jakinaren gainean dagoela.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko uztailaren 11n

Lehendakari: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko uztailaren 11n egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– betetzeko lekualdatze lehiaketa bukatu da (deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2001eko apirilaren 27ko 45. zenbakian, bai eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere, 2001eko maiatzaren 11ko 58. zenbakian).

Celina Echeverría Uhalte izan da lehiaketa hori gainditu duen izangai bakarra.

Hori ikusita, eta 7.2 oinarrian ezarritakoa betez, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoko administrari– izendatzea ondoko izangaia. Izen-abizenak:

ECHEVERRÍA UHALTE, Celina

2. Interesdunak hamar egun naturaleko epea izanen du, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2001eko uztailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2001eko uztailean egindako bilerak**MAHAIA**

3, 11, 15, 30 eta 31n.

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

3, 11 eta 15ean.

Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko uztailean sartu diren dokumentuen zerrenda

2an:

– Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001Foru Legea aldatzekoa.

– Idazkia, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearena. Horrekin batera, Mahaiak foru lege proposamen bat tramitatzea onartu izanaren aurkako errekurtsioa; hain zuzen ere, 258/88 Foru Dekretua aldatzeko – zenbait sendagairen prestazio osagarria Nafarroako Foru Komunitatearen kargura egitea ezartzen zuen dekretuak– Foru Lege proposamena.

– Idazkia, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearena. Horrekin batera, Mahaiak foru lege proposamen bat tramitatzea onartu izanaren aurkako errekurtsioa; hain zuzen ere, Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Legea.

– Idazkia, ACS-ACR EABrena. Horrekin batera, zoladura eta estalduren gogortasunari buruzko txostenak.

3an:

– Idazkia, Ana M^a Vicente Alzuaz andrearena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, Cecilia Osacar Garralda andrearena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, Javier Aizcorbe Garralda jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, José Julián Eraso Erro jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

4an:

– Idazkia, Convergencia de Demócratas de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horrekin batera, Mahaiak foru lege proposamen bat tramitatzea ez onartu izanaren aurkako errekurtsioa; hain zuzen ere, Nafarroan LOGSEko musikako goi mailako zikloaren ezarpena arautzen duen Foru Lege proposamena.

– Idazkia, Mercedes Astorga Lete andrearena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu du.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horrekin batera, Mahaiak uztailaren 3an foru lege proposamen bat tramitatzea ez onartu izanaren aurkako errekurtsioa; hain zuzen ere, Nafarroan LOGSEko musikako goi mailako zikloaren ezarpena arautzen duen Foru Lege proposamena.

– Idazkia, Kontuen Ganbararena. Horrekin batera, hurrengo fiskalizazio txostena: Nafarroako Gobernuak Arrese Fundazioari emaniko dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk (1996-2000).

– Ahozko galdera, Pirotecnia Oroquieta enpresaren hondakin eta biltegiei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina.

– Idazkia, Pablo Muñoz Trigo foru parlamentariarena. Horren bitartez, uko egiten dio foru parlamentaria izateari.

5ean:

– Idazkia, Pedro Otaduy Ibáñez jaunarena. Horrekin batera, San Frantzisko ikastetxe publikoari buruzko zenbait agiri.

– Idazkia, Pedro Villarroel Clemente jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, Francisco Morales Hernández jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, Jesús Armendariz Mateo jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, Lehendakaritza Ministerioarena. Jakinarazten du, horren bitartez, jaso duela Osoko Bilkurak hartutako erabakia enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruz.

11n:

– Idazkia, Begoña Bueno Barranco andreak. Horren bitartez, eskatzen du onar dezatela, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdian.

– Idazkia, Miguel Esparza Oroz jaunarena. Horren bitartez, eskatzen du onar dezatela, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdian.

12an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Iratxe kontsumitzaileen elkarteari emaniko dirulaguntzei buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, 2001etik 2005era bitarteko Nafarroako osasun plana.

– Nafarroako 2000ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Plan soziosanitarioko fase pilotua abian jartzei buruz foru parlamentari Isabel Arboniés

Bermejo andreak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak. Horren bitartez, Osasun kontseilariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan “Andreak” biharamuneko pilula dohain banatzen zuela-eta hasitako espedienteari buruz.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak. Horren bitartez, Ekonomia kontseilariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan Arrese Fundazioari emaniko laguntzen kudeaketari buruz Kontuen Ganbarak eginiko txostenean atzemandako gorabeheri buruz; Sanz Lehendakariaren agerraldia ere eskatzen du, Patronatuko Batzarreko buru baita.

16an:

– Idazkia, ACS-ACR EABrena. Horrekin batera, Iruñeko entzutegi izandakoa Parlamentuko egoitza izateko zaharberri eta egokitzeko obraren 12. ziurtagiria, 2001eko maiatza eta ekainari dagokiona.

– Idazkia, Kanpo Gaietako Ministerioarena. Horren bitartez, Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarria, zeina foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzei buruzkoa baita, indarrean dagoela berresteko adierazpen politikoa jaso izanaren berri eman du.

– Idazkia, Kanpo Gaietako Ministerioarena. Horren bitartez, Espainiako Gobernuaren finantza-egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzen duen adierazpen politikoa jaso izanaren berri eman du.

– Idazkia, Kanpo Gaietako Ministerioarena. Horren bitartez, El Salvadorreko Santa Tecla herriko San Jacinto mendia eremu babestua izendatzeko adierazpen politikoa jaso izanaren berri eman du.

– Idazkia, Kanpo Gaietako Ministerioarena. Horren bitartez, Nazioko Gobernuak A-68aren emakida 15 urtez luzatu duelako Nafarroako Parlamentuak eginiko protesta adierazpena jaso izanaren berri eman du.

– Idazkia, Errioxako Parlamentuarena. Horren bitartez, “Giza eskubideak Colombian” adierazpen instituzionala igorri du, Osoko Bilkurak onetsia.

– Idazkia, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluarena, Tuteran unibertsitate ikasketak jartzeko eskaerari buruzkoa.

17an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, irrati emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, 2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, Azcona, Paz eta beste batzuen, Pitillasen jarriko den errausketa-labearen aurkako kolektiboaren ordezkari gisa, agerpena eskatuz Behi-aziendaren Entzefalopatia Espongiformearen Jarraipena eta Kontrola egiteko Batzorde Berezian.

– Idazkia, Mariano Brizuela López jaunarena eta beste batzuen. Horien bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu dute.

18an:

– Idazkia, Konstituzio Auzitegiarena. Horrekin batera, 3004, 3144 eta 3182/98 konstituziokontra-kotasun errekurtsoei dagozkien epaiak gutxi barru eztabaidatu eta bozkatuko direla dioen komunikazioa.

– Galdera, aurrekontuko “Euskara sustatzeko jarduerak” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, aurrekontuko “Euskara erabiltzeko programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, aurrekontuko “Gau-eskoletarako diru laguntzak” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, aurrekontuko “Musikako goi mailako ikasleentzako beka” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, aurrekontuko “Deialdi eta programen publizitate eta propaganda” kontusailaren

betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, aurrekontuko “Euskaltzaindiarekin hitzarmena” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, aurrekontuko “Norberak hizkuntzak ikasteko sozietate publikoa” kontusailaren betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Alegazio-idazkia, ACS-ACR EABrena, obraen atzerapenari buruz zuzendaritza fakultatiboak eta unitate teknikoak eginiko txostenari dagokion.

19an:

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bitartez, Pitillasen jarriko den errausketa-labearen aurkako kolektiboaren ordezkarien agerpena eskatzen du, azal dezaten zergatik dauden labe horren aurka.

– Idazkia, Elena Atarés Ayuso andrearena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

– Idazkia, Luis C. Yarnoz O’Harcourt jaunarena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

20an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruz foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, azpiegiturei buruzko hiru urteko plana dela-eta Azagrako Udalak egindako eskaerak ukatu izanari buruz foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Idazkia, Konstituzio Auzitegiarena. Horrekin batera, auzitegi horretako Osoko Bilkurak emandako epaia; hain zuzen ere, 3004/98, 3144/98 eta 3182/98 konstituziokontra-kotasuneko errekurtsu metatuetan, lurzorua araubide eta balorazioari buruzkoak baitziren.

23an:

– Idazkia, Kontuen Ganbararena. Horren bitartez, hau igortzen du: “Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliatutako funtzionarioen eskubide pasiboen eragin ekonomikoari buruzko azterlan aktuariala” izenekoari buruzko

aholku-txostenaren behin betiko plangintza-memoranduma.

25ean:

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena, non proposatzen baitu adierazpen politiko bat egitea G-8k Genoan eginiko goi bileran getaturikoak ikusita.

– Idazkia, Arguedasko Udalarena. Horrekin batera, José Javier Múgica Astibia eta Mikel Uribe Aurkiaren aurkako atentatu terroristak gaitzesteko erabakia igorri du.

– Idazkia, Mariano González Presencio jaunarena. Horrekin batera, 12. ziurtagiria, 2001eko maiatza eta ekainari dagokiona.

– Idazkia, Mariano González Presencio jaunarena. Horrekin batera, ACS-ACR EABk obraren atzerapenari buruz eginiko alegazioak.

– Idazkia, Konstituzio Auzitegiarena. Horrekin batera, 1229/97 konstituziokontarakotasuneko errekurtsua dela-eta Osoko Bilkurak emaniko autoaren kopia.

– Idazkia, Konstituzio Auzitegiarena. Horrekin batera, 549/94 konstituziokontarakotasuneko errekurtsua dela-eta Osoko Bilkurak emaniko autoaren kopia.

– Idazkia, Konstituzio Auzitegiarena, Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzeko Foru

Legearen aurkako konstituziokontarakotasuneko errekurtsua dela-eta.

26an:

– Idazkia, Donamariako Udalarena, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika dela-eta.

– Idazkiak, Santiago Tainta Ausejo jaunarena eta beste batzuen. Horien bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu dute.

27an:

– Idazkia, Laura Goikoetxea Gabilondo andrearena. Horren bitartez, mailaz igotzeko txandan sartzeko eskatu du.

30ean:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Osasun Publikoaren Institutuak eginiko txostena, telefonia mugikorren antenak jartzearen inguruan neurriak har zitzan Nafarroako Gobernuaren premiatzeko Nafarroako Parlamentuak 2001eko apirilaren 26an hartutako erabakia dela-eta.

31an:

– Idazkia. Tere González eta Milagros Rubio andreena. Horren bitartez, eskatzen dute elkarrizketa eta adostasuna erabil daitezela Gazteluko Plazako aparkalekuaren auzia konpontzeko.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Ureztapenen Plan Nazionala.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--